



TOLOSAKO  
UDALA

## **Tolosan, 2021eko otsailaren 22an, bildu da Tolosako Udalak antolatzen duen mendi gaiei buruzko Film Labur Lehiaketa epaitzen duen taldea, honako hauek osatua:**

- Pablo Dendaluze
- Nagore Salaberria
- Josu Iztueta

Deialdira oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten 5 lan aurkeztu dira, eta guztiak ikusi eta aztertu ondoren erabaki dute sariak ondokoak izatea:

- **Tolosaldeko lanik onenari saria:** EGUZKIAREN ERROMESAK
- **Film Laburren lehiaketaren Sari Nagusia:** Hutsik

### **Arrazoitzea:**

Lehiaketa honetako film laburrek 5 minutuko luzapenaren muga dute, eta agian luzeraren muga horregatik-edo, badirudi sormenean ere mugak izan dituztela aurkeztu diren lanek.

Mendi Film Festibalen ongi ikus dezakegun bezala, ikusleek gehien atsegin dituzten filmek, zinetik atera eta gero ere barruan zerbait uzten dizuten lan horiek, eta, azken finean, sariak jasotzen dituztenek, bi osagai nagusi izaten dituzte: irudien kalitatea eta istorioaren edo mezuaren kalitatea.

Horregatik, irudiak eta grafismoa beste garai batekoa den arren, eta istorioaren aria ere berritzailea ez den arren, iruditu zaigu **"Eguzkiaren Erromesak"** lanak betetzen dituela film labur bati eskatzen zaizkion minimoak, eta gainerako lanen gainetik jarzea erabaki dugu Tolosaldeko lanik onena bezala sarituz.

**Sari Nagusia hutsik** uztea erabaki dugu, gure ustez ez delako gutxieneko maila bete. Ekintza baten irudiak elkartu eta musikarekin lotzea ez zaigu film labur lehiaketa baterako nahikoa iruditzen. Urtez urte lehiaketa honek izan duen kriterio berari jarraituz, sormena, planifikazioa, edizioa eta mezua hartu ditugu kontutan, eta espero dugu datozen urteetarako akuilu moduan balio izatea, sortzaile gazte edo ez hain gazteei lan originalak sortzera bultzatzeko.

Dagokionak kontuan izan dezan agiri hau sinatzen dugu Tolosan, 2021eko otsailaren 22an.

Pablo Dendaluze

Nagore Salaberria

Josu Iztueta